

Memoria gorde,
oraina bizi,
etorkizuna eraiki,
izan Kronikalari!



HERNANI LITERATURA

Pako Suduperen liburu auzkezpena

Hernanin bizi den Pako Sudupe idazle azkoitiarrak liburu berri baten aurkezpena egingo du asteazkenean Biteri Kultur Etxean. 19:00etan izango da eta *Txillardegiren borroka abertzalea* du izenburu. ||

HERNANI ERREGEAK

Pejeen trajeak bueltatu, bihar

Errege Magoen kabalgatako pajeen trajeak bueltatzeko eguna bihar izango da. Biterin, 17:00etatik 18:00etara. ||

HERNANI XALAPARTA

Urteko asanblada gaur, Xalapartak

Gaur goizerako asanblada deitu du Xalaparta elkarteak. Aurreneko deialdia 10:00etarako jarri da, eta bigarrena 10:30etarako. ||

HERNANI ERRUGBIA

Hernani-La Vila, gaur Landaren

Partidu oso garrantzitsu batekin hasiko du urtea, Hernanik: La Vila kontrario zuzena hartuko dute trikolorrek Landaren, gaur eguerdiko 12:00etan hasita. Irabazi beharreko partidua dute, beraz, mailari eusteko lehia horretan. ||

HERNANI ARRAUNA

Haurrak 3garren, Ligaxka hasieran

Batel Ligaxka hasi zen atzo Pasaian eta Hernaniko haurrak, nesketan, 3garren geratu ziren lehenengo estropadan. Mutil infantilak ere ez ziren atzean geratu eta 4garren amaitu zuten, hauek ere bikain. Neska promesak, mutil kadeteak eta mutil jubenilak ere aritu ziren. ||

HERNANI IRTEERA

Mendiriz Mendik, irteera gaur

Gaurko jarri du zita Mendiriz Mendi elkarteak gaztetxoekin Hernani Ezagutuz ekimenaren baitan. Latsera joango dira, 09:00etan Biteritik abiatuta. ||

HERNANI UDALA

17 etxebizitza alokairuan esleituko dira

Izenematea martxoan irekiko du, baina ezinbestekoa da urtarrilaren 31 baino lehenago Etxebiden izena emateko eskaera eginda izatea. 17tik zuzkidura-etxebizitzak, gazteentzat eta adinekoentzat.

UDALAK bere jabetzako etxebizitzak esleitzeko prozedura lantzen ari da. Guztira, babes ofizialeko 8 etxebizitza eta 9 zuzkidura-etxebizitza dira. Berderatzi etxebizitza horietako

zazpi 35 urte baino gutxiago dituzten gazteentzat izango dira eta beste biak 70 urtetik gorako pertsonentzat. Oinarriak otsailaren bukaeran onartuko dira eta ondoren

izena emateko epea irekiko da. Zerrendan sartzeko ezinbesteko baldintza da Etxebiden urtarrilaren 31 baino lehen izena emateko eskaera eginda izatea. Babes ofizialeko

etxebizitzak Etxebideren baremazioaren arabera esleituko dira eta zuzkidura-etxebizitzak, ostera, irizpideak betetzen dituzten guztien artean zozketatuko dira. ||

HERNANI PSE-EE PRENTSA OHARRA

«Udal Gobernua animatzen dugu Chillida Leku museoaren berririkitzea aprobetxatzera»

PSE-EEko bozeramailearen hitzetan «aukera paregabea da Hernani eta eskualdearentzako eta oihartzuna kudeatzeko Foru Aldundiko Turismo eta Kultura sailarekin bilera bat eduki behar da».

HERNANIKO PSE-EEko bozeramaile den Ricardo Crespo pozik agertu da Chillida Leku berririkiera dela eta. Apirilean zabalduko ditu berriz ere atek. «Albiste ona eskultorearen familiak iragarri zuten eta azpimarratu zuten berririkitzea dela museo entzutsua sendo batek sustengatzen duelako etorkizunari begira».

Zentzu horretan, Chillidaren familiak adierazi duenez, «argiteria hobetuko da, zoru eta sabaian isolamendu gehiago egongo da eta mugikortasun murriztuagoko pertsonentzako irisgarritasun egozia edukiko du. Gainera, ongi etorri esparru batekin, kafetegiarekin, dendarekin eta parkingeko instalakuntzen hobekuntzarekin birgaitu nahi dute museoa».

Prentsa oharrean Hernaniko sozialisten buruak eskatzen dio EH Bilduren Udala Gobernuari ez pasatzen uzteko «aukera paregabe hau eta



Chillida Leku berriz ere irekiko da datorren apirillean.

turismoaren inguruko plan estrategikoa edukitzea herrira eta eremu natural aparta honetara erakartzeko Chillida lekura hurbiltzen diren bisitariak. Hernaniko Udala ezin du kanpoan geratu garrantzi honetako proiektu batean eta

gonbidatzen ditugu, Denis Itxaso buru den, Foru Aldundiko Kultur eta Turismo Sailarekin bilera bat edukitzera esparru honek edukiko duen oihartzuna kudeatzeko»

«Argi dago, Chillida Leku aukera bat dela Hernani eta

eskualdearentzako, turismo helmuga bereizgarria» gaineratu du. Gainera, «Euskadira etorri daitekeen bisitariarekin batera, Espainiako turistak hurbilduko dira, baina batez ere nazioarteko turismoaren erreferentzia izango da». ||

DOBERAK DINAMIZATZAILEA BEHAR DU amatasun baja dela eta.

Bidali zure Curriculum Vitae-a, **urtarrilaren 21era arte:** dobera@dobera.eus

DOBERA Euskara Elkartearen Larramendi 11 behean 20.120 HERNANI

ESKATZEN DA:

- Euskara ondo menperatzea hitzez zein idatziz.
- Ofimatika programak eta teknologia berriak menperatzea.
- Hukuritzu normaikuntzako lanetan eskarmentua: koordinazio eta kudeaketa, administrazioa, aisialdia, kultura...

BALORATUNO DA:

- Euskara elkartearen ezagutza eta lan eskarmentua.
- Harremanetarako gaitasuna.
- Iniziatiba izatea.
- Gida baimena eta kobea.
- Dobera-Kronikako bazkide izatea.

ESKAINIKO ZAI:

- Eginkizunari dagozkion soldata eta lan baldintzak.

Baldintzak betetzen dituztenen artean probak egin ondoren bal aukeratu da

Gerizpe
Kafetegia-Okindogia

682 156 795

Kale nagusia 5, Astigarraga

Funeraria VASCONGADA
Zure eskura

24h-ko zerbitzua
943 376 980

Orkolaga, 2-4
943 55 79 01
HERNANI

www.funerariavascongada.com

☎ **TAXIAK:** 943 550093 | **UDALTAINGOA:** 943 248900 | **DYA:** 943 464622 | **AUTOBUSAK:** Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 | **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 943 203020 | **JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK:** 943 331103 ☎ / **Egunez:** Alzpuru Latsunbeberri, 11 (Hernani) **943 336077** / **Gauzez:** Aldabe Perkaiztegi, 8 (Antziola, Hernani)

EGURALDIA **GAUR** Ipar-mendebaldeko haizearekin, lainoak kantauri isurialdean pilatuko dira, nahiz eta apenas euririk ez utzi gurean. Tenperaturak mantendu egingo dira edo zerxobait igo. **Min.6° / Max.11°**

BIHAR Eguraldiak ez dauka aldatzeko traza handirik. Ipar partean motel antzean jarraituko du eta noizean behin euri bikia egingo du. **Min.7° / Max.12°**

ASTIGARRAGA AZSTIGAZTE



Pantxoia Etchegoyen, Amaia Nausi, Garazi Urdangarin, Beñat Sasiain eta Urkiri Salaberria.

Garazi Urdangarinek eraman du Azstigazte lehiaketako saria

Finalean Garazi Urdangarin hernaniarra eta Beñat Sasiain astigartarra egon ziren eta biek etorkinen gaia aukeratu zuten hausnarketa egiteko.

GARAZI Urdangarin hernaniarra irabazi du Astigarragako Udaleko gazteria sailak antolatutako Azstigazte lehiaketa. Finala eta sari banaketa ostiralean izan ziren Astigarragako udaletxeko areto nagusian eta bertan bi lehiakide izan ziren: Beñat Sasiain astigartarra (14 urte) Pinantza ezizenarekin eta Garazi Urdangarin hernaniarra (15 urte) Bidegurutze ezizenarekin.

Bakoitzak idazlan bat eta irudi bat egin zituen. Eta aurretik, lanaren ahozko aurkezpena ere bai. Gaia laguntza eta maitasuna zen eta Garazi Urdangarinaren Gaur iaz balitz lanak irabazi zuen lehe-

‘Gaur iaz balitz’ lana da saria eraman duena eta ‘Itsasoaren bestaldean’, finalista.

nengo saria. Etorkinen bueltan egin zuen hausnarketa: ze egoera dagoen etorkinen inguruan, generoaren inguruan...

Beñat Sasiain finalista Itsasoaren bestaldean lana aurkeztu zuen eta berak ere etorkinen gaia aukeratu zuen: afrikar bat Donostian. Itsasoa izan zuten bai batak eta bai besteak amankomunean.

Epaimahaia Amaia Nausi,

Eusko Ikaskuntza; eta Pantxoia Etchegoyen, Euskal Kulturaren Erakundeko (EKE) presidentea osatu zuten. Mikel Arostegi gazteri teknikaria ere bertan zen.

Epaimahaikideek hausnarketa egin zuten lehiaketaren inguruan, eta eskerrak eman zizkieten Astigarragako udalari aukera emateagatik, bai beraiei, baita gazteei ere.

Udaleko ordezkariak, Urkiri Salaberriak, alde batetik, eskerrak eman zizkien, partehartzaile guztiei eta epaimahaikideei ere bai eta bestetik, adierazi zuen «pozgarria dela jakitea ez dela galdu ahalegionaren kultura». ||

HERNANI IPUIN KONTAKETA

Ipuin kontaketa saioetara sartzeko gonbidapena eraman beharko da

Ipuin kontaketa aldaketa garrantzitsua da eta giroa eta kalitatea bermatzeko ume kopurua mugatzea ezinbestekoa da.

IPUIN kontaketa saioetan aldaketa garrantzitsu bat egin da. Hemendik aurrera saioetara sartzeko gonbidapena eramatea ezinbestekoa izango da. Hainbat kontalarik egindako eskaerari erantzunez, kontaketa giroa eta kalitatea bermatze arren, ume kopurua mugatzea ezinbestekoa ikusten dute. Gonbi-

dapenak liburutegian eskuragarri izango dira.

Osteguneko saiorako gonbidapenak bihartik banatuko dira

Osteguneko Pello Añorgaren saiorako gonbidapenak bihartik aurrera banatuko dira, agortu arte. Bide batez, hementxe urtea hasteko gomen-

dio batzuk: Ordutegia bete. Saioa hasi ondoren ezin izango da gelan sartu. Begirune kontua da. Adina errespetatu. Saio bakoitza urte tarte zehatz bati zuzenduta dago. Haurrak saioan sartu nahi ez badu, ez larritu. Baliteke berarentzat une egokia ez izatea. Urte osoan aukera gehiago egongo da. ||

HERNANI UDALA DIRULAGUNTZAK

Dirulaguntzak kirolen arloan abian daude

2017-2018 denboraldiko jarduerengatik emango da. Aurkezteko azken eguna urtarrilaren 25a da.

ZABALDU du Udalak epea, kirol programa eta jarduerarako dirulaguntzak eskatzeko. Aurrekontuak irabazi asmorik gabeko kirol klubei eta elkartei zuzendutako aurrekontu partidak biltzen ditu. Kirol programen helburuekin bat datozen 2017-2018 denboraldiko hainbat kirol programa eta jarduera antolatzeagatik emango dira, horiek izandako proiektuagatik zein interesagatik. Oinarri hauen

objektu diren dirulaguntzarako bideratuko den kreditua 55.000 eurokoa da.

Aurkezteko azken eguna urtarrilaren 25a izango da eta dokumentazioa eskuratzea, informazioa eta eskeren aurkezpena Hernaniko Udal Kiroldegiko bulegoetan, edo informazioa www.hernani.eus web orrian ere eskura daiteke. 2018ko abuztuaren 31ra arte egindako jarduerak sartuko dira. ||

HERNANI ERREMONTEA

Endika Barrenetxea, finalerdietara

Endika Barrenetxeak 30-24 irabazi zion Josetxo ezurrari Master Tomeoko bere lehengo partiduan eta finalerdietara sailkatzea lortu du. Bertan, Uterga izango du aurkari datorren larunbatean eta finaleko txartelaren bila irtengo dira. Pasa den urtean 30-15 irabazi zuen hernaniarra Utergaren kontra finalerdia, baina aurten joko handiz dabil Doneztebeko aurrelaria. ||

HERNANI ELUR TXORI ELKARTEA

Asanblada gaur, bazkideek

Urteko ohiko bazkide asanblada deitu du Elur Txori elkarteak, gaurko 10:00etarako egin du aurreneko deialdia, eta 10:30etan bigarrena. Besteak beste, aztertuko dira lehendakariaren txostena, 2018ko balantzea eta 2019ko aurrekontua eta ondare ekarpenak, eta bazkideen alta eta bajak. Gogorazi dute isuna duela arrazoirik aurkeztu gabe asanbladara ez bertaratzeko; elurtxori@gmail.com helbidean edo elkarte buzoian eman daiteke arrazoi horien berri. ||

HERNANI ZINEA

‘Dantza’ eta ‘Ralph rompe internet’

Bi pelikula ikusi ahal izango dira gaur eta bihar, Biterin. Dantza, batetik, gaur 19:30etan eta bihar 16:30etan. Ralph rompe internet, berriz gaur jarriko da 16:30etan. ||

HERNANI-GOIZUETA PELOTA

Deskarga eta Alegria, txapelkun

Julen Deskarga eta Oier Alegria hernaniarrek Umore Ona txapelketako finala irabazi zuten, atzo, Goizuetan. Añorgako OIlden eta Bertiz 18-11 garaitu zituzten. Ez zuen zorte bera izan Xanet Apeztegia goizuetarrak eta finala 18-10 galdu zuen, Etxeberriarekin batera, Labaka-Artetxeren kontra kimu mailan. ||

IRAGARKI MERKEAK

Txantxillako Lekuona panaderi-kafetegiak dendaria behar du asteburutan lan egiteko. Interesatuak entregatu CVA lokalean bertan.

Tailer mekanikoa salgai Hernanin. Lizentziak indarrean ditu eta makineria guztia prest. Bezero kartera handia eta errentagarritasun frogagarria. Deitu: 656 709 251

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)